



Gure proiektua


HOST FOOD

...





Ideia



Elikadura bizitzako alderdi garrantzitsua da, izan ere, gizakion osasunean zuzenean eragiten duen faktorea da. Zoriturrez, egungo gizartean, geroz eta jende gutxiagok sukaldatzen du, bizimoduaren abiadura azkarra, baliabide falta edo sukaldatzeko nagitasuna direla medio. Ondorioz, jende asko, egunero berdina jatera ohitzen da, edo dieta kaltegarriak eramaten dituzte. Honek guztiak, hainbat arazo larri ekar ditzake osasunean.

Adibide esanguratsuenetako bat obesitatea da. 1975etik, obesitatea ia hirukoiztu egin da mundu osoan. Urteak pasa ahala, joera hori modu esponenzial batean ari da handitzen, batez ere adin txikikoetan. Hori gutxi balitz, diabetesa, hipertentsioa, gaixotasun kardiobaskularrak, digestio-sistemako gaixotasunak, anemia, dislipidemia, minbizia eta infekzio ezbedinak elikadura txar baten ondorioz sor daitezken arazoen beste adibide batzuk besterik ez dira.

Premia hau asetzea izango da gure proiektuaren helburu nagusia, familia ezberdinen egunerokoa errazteko pentsatuta dagoena. Esan bezala, etxe askotan, arazo izan ohi da zer eta nola sukaldatu pentsatzea. Ez hori bakarrik, hau egiteko, dirua eta denbora aurrezteko beharrezko bihurtzen ari da. Gainera, dieta ezberdinak jarraitzea edo bizitza osasuntsu bat eramatea zaila izan daiteke hainbat kasutan.